



FUNTZESKO JARDUERAK

Lehenik eta behin denda ondo kudeatzeko, beharrekoak diren ekintza batzuk egin behar ditugu, gure balio-proposamena arropa pertsonalizatuan oinarritzen dela kontuan hartuta.

FUNTZESKO JARDUERAK gure balio-proposamenetan oinarrituta:

1) Bezeroen ezagutza eta behar pertsonalizatuaren azterketa

Bezeroen beharrak, mugak eta eguneroko erronkak sakon ulertzea da gure proiektuaren oinarria. Arropa pertsonalizatua soilik eskaintzen dugunez, ezinbestekoa da bezero bakoitzaren egoera zehatza ezagutzea, janzteko erraztasuna eta autonomia bermatzeko. Jarduera honek balio-proposamenean agertzen diren helburuak zuzenean lantzen ditu: erosotasuna, autonomia eta erabilerraztasuna.

2) Bezeroarekiko harremana

Bezeroarekin harreman zuzena eta pertsonalizatua izango da, etxez etxeko zerbitzua eskainiz. Publizitatea sare sozialen, elkarten eta osasun-zentroen bidez egingo da.

3) Enpresaren antolaketa

Hornitzaile fidagarriak aukeratuko dira, kalitatezko eta erosoak diren ehunak bermatzeko. Biltegiko gestioa sinplea izango da, eskaeraren arabera ekoizpena lehenetsiz, soberakinak eta kostuak murrizteko.

4) Funtsezko soziatekin harremanak

Fisioterapeuta, terapeutak eta osasun arloko profesionalekin lankidetzat estua izango da. Haien aholkuei esker, arropa erabiltzaileen behar fisikoetara egokituta diseinatuko da, erosotasuna eta autonomia hobetzeko.

5) Lokalaren diseinua eta irisgarritasun osoa

Mugikortasun murriztua duten bezeroentzat ezinbestekoa den jarduera da. Gure testuan aipatzen dugun bezala, esperientzia erraza, segurua eta irisgarria eskaintzea da helburua. Posible baldin bada, denda apaletan antolatuta egongo da, erakusketarako jantzi ereduak soilik jarritz, eta produktu guztiak eskuragarri egongo dira laguntzarekin. Zapatilak beheko aldean egongo dira, eta apalen artean poster informatiboak edo ispiluak jarriko dira.

Amaitzeko, erdigunea libre geratuko da mugitzeko erraztasuna bermatzeko, eta hormak estilo tradizional eta modernoak uztartzen duen diseinu inklusiboarekin dekoratuta egongo dira.

6) Teknologiaren edo produktu pertsonalizatuen garapena (arropa egokitua)

Hau da gure negozioaren bereizgarri nagusietako bat. Diseinu guztiak pertsonalizatuak izango dira, kremlera bereziak, botoi magnetikoak, material leunak eta egokitzapen funtzionalak erabiliz. Horretarako, oinarritzko eredu edo jantzi base batetik abiatuko gara, eta hortik bezeroaren eskakizunak kontuan hartuz pertsonalizatuko genuke.

7) Planifikazioa eta antolaketa operatiboa (eskaeren arabera)

Ez dugu bilduma edo serie estandarrik sortuko, baina bai eskaeren arabera antolatutako lan-plangintza. Jarduera honen barruan sartzen dira materialak aukeratzea, eskaeren egutegia, ekoizpen-denborak eta biltegi txiki baten kudeaketa, batez ere materialak eta osagarriak gordetzeko, ez arropa bukatua.